AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

695

AGINDUA, 2012ko otsailaren 1ekoa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, zenbait epai betetzeko, 2008ko lan-eskaintza publikoari dagozkion estatu osorako gaikuntza duten Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioko funtzionarioen eskalan sartzeko hautaketa-prozesuak zuzenduko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituena.

Irailaren 23ko 161/2008 Dekretuak onartu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko lan-eskaintza publikoa, eta han jasotzen dira, besteak beste, dagozkion hautaketa-prozesuen bidez esleitu beharreko estatu osorako gaikuntza duten Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioko funtzionarioen plazak.

Horretarako, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legean eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak langileak hautatzeari buruz biltzen dituen xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta azken lege horren 6.1.i) artikuluaren bidez emandako eskuduntzez baliatuz, esparru horretan aginpide zeukan sailburuak 2008ko lan-eskaintza publikoari dagozkion estatu osorako gaikuntza duten Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioko funtzionarioen eskalan sartzeko hautaketa-prozesuak zuzenduko zituzten oinarri orokorrak onartu zituen. Oinarri horiek 2008ko azaroaren 3an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren.

Zenbait prozesu judizial burutu dira eta horietan izandako epaien arabera, eskaerak aurkezteko epea ezartzen duen oinarria indargabetuta gelditu da.

Bestaldetik, oinarri orokorrak 2008an argitaratu ziren eta iragandako denbora dela eta, epaiak betetzeko beharrezkoa da eskaerak aurkezteko puntu batzuk egokitu behar dira, gaur egun indarrean dagoen araudiarekin adosteko.

Hori dela eta, 2008ko lan-eskaintza publikoari dagozkion estatu osorako gaikuntza duten Euskal Autonomia Erkidegoko Toki administrazioko funtzionarioen eskalan sartzeko hautaketa-prozesuak zuzenduko dituzten oinarri orokorren inguruan izandako epaiak betetzeko,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Estatu osorako gaikuntza duten Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioko funtzionarioen eskalan sartzeko hautaketa-prozesuak zuzenduko dituzten oinarri orokorrak onartzea. Oinarri hauek eranskinean ageri dira. Prozesu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko 2008ko lan-eskaintza publikotik eratortzen dira.

AZKEN XEDAPENAK

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 1a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

ERANSKINA

ESTATU OSORAKO GAIKUNTZA DUTEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKI ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOEN ESKALAN SARTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK BIDERATU BEHAR DITUZTEN OINARRI OROKORRAK

1.– Helburua.

1.1.– Oinarri hauen helburua da estatu osorako gaikuntza duten Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioko funtzionarioen eskalan sartzeko hautaketa-prozesuak zuzenduko dituzten oinarri orokorrak onartzea.

1.2.– Ezgaitasunak dituzten pertsonentzako erreserbatutako lanpostuak.

Eskainitako plazetatik, kasuan kasu dagozkion oinarri espezifikoetan ageri direnak erreserbatuko dira ezgaitasunak dituzten pertsonek bete ditzaten.

Txandan inork izena ez emateagatik edo izangaiek hautaketa-prozesuak gainditzeko gutxieneko baldintzak ez betetzeagatik, ezgaitasunak dituzten pertsonentzako txandan bete gabe geratzen diren plazak txanda irekiari gehituko zaizkio.

1.3.– Barne-sustapenerako erreserbatutako lanpostuak.

Halaber, deitu diren plazetatik, kasuan kasu dagozkion oinarri espezifikoetan ageri direnak erreserbatuko dira barne-sustapenerako txandako pertsonek bete ditzaten.

Barne-sustapenerako erreserbatzen diren lanpostuak hutsik gertatuz gero, txanda librean eskaintzen direnekin pilatuko dira.

2.– Hautagaiek bete beharreko baldintzak.

2.1.– Beharrezko baldintzak betetzeko unea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago bete beharko dituzte hautagaiek ondorengo puntuan zehazten diren baldintzak eta horiei eutsi beharko diete harik eta estatu osorako gaikuntza duten Toki Administrazioko funtzionario gisa, dagokion azpieskalan, lanpostuaz jabetzen diren arte.

2.2.– Hautagai guztiek bete beharrezko baldintzak.

Deialdi honetako hautaprobetan parte hartu ahal izateko, izangai guztiek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritartasuna izatea.

b) Deialdiak helburu dituen lanpostuak berezko dituen egiteko propioak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

c) Hamasei (16) urte beteta izatea eta hirurogeita bost (65) urteko adina ez izatea.

d) Diziplinazko espedientearen bidez autonomia-erkidegoetako administrazio publikoetako edo organo konstituzionaletako edo organo estatutarioetako zerbitzutik banatuta ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionario-kidegoan edo eskalan sartzeko desgaikuntza absolutu edo berezia ez izatea.

e) Indarrean dagoen araubidearen arabera, desgaikuntza edo bateraezintasuneko legezko auziren batean sarturik ez izatea; bateraezintasunen kasuan, hala ere, ez da eragozpen izango interesdunak aukera egin dezan.

f) Ordainduta izatea parte hartu nahi den titulazio-mailako eskabidea jaso eta aztertzeagatiko tasa. Tasa horren zenbatekoa 4.1 oinarrian zehazten da.

g) Oinarri espezifikoetan eskatzen den titulu ofiziala edo homologatua izatea, edo agiriok jaso ahal izateko eskubideak ordainduta egotea. Atzerriko titulazioen kasuan, beren homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.

h) Oinarri espezifikoetan eskatzen den beste edozein baldintza.

2.3.– Ezgaitasunak dituzten pertsonentzako erreserbatutako plazetarako hautagai diren pertsonek bete beharreko baldintzak.

Ezgaien txandan parte hartu ahal izateko, interesdunak ezgaien izaera aitortua izan beharko du: % 33ko edo hortik gorako ezgaitasuna, Administrazioaren organo eskudunak aitortua (kasuan kasuko foru aldundiko sail eskudunak, Imsersok edo baliokideak).

2.4.– Barne-sustapenerako txandarako erreserbatutako plazetarako hautagai diren pertsonek bete beharreko baldintzak.

Oinarri orokor hauetako 2.2 paragrafoan adierazi ditugun baldintzez gain, barne-sustapenerako txandan parte hartuko duten pertsonek honakoak bete beharko dituzte:

a) Estatu osorako gaikuntza duen Toki Administrazioko funtzionarioa izatea, oinarri espezifikoek zehazten duten azpieskalan eta, hala bada, kategorian, eta bi urtez zerbitzua eman izatea jatorrizko azpieskalan.

b) Jardunean, antzeko egoeran, edo zerbitzu berezietan egotea jatorrizko azpieskalan.

Baldin eta izangaiak txanda honetan parte hartzeko baldintzak betetzen ez baditu, Administrazioak, bere kabuz, txanda irekira pasatuko du eskabidea.

3.– Eskabideak aurkeztea.

3.1.– 2008an aurkeztutako eskaerak.

Hautaketa prozesu honetan parte hartzeko, 2008an argitaratutako deialdian ezarritako epean eskaera aurkeztu eta dagozkion tasak ordaindu zutenek ez dute eskaera berri bat aurkeztu beharrik, eta lehen aurkeztutako eskaera Agindu honetan ezarritako epean aurkeztutzat hartuko da.

Hala ere, izangai horiek eskaeran lehen jarritako datu pertsonalak aldatu behar badituzte, behar dituzten aldaketak azaltzen dituen idazki bat ivap@ivap.es helbidera bidal dezakete.

3.2.– Eskabideak aurkezteko epea.

Oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, azpieskala bakoitzari dagozkion oinarri espezifikoekin batera. Era berean, deialdiaren iragarki bat argitaratuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean. Oinarri orokor hauek araututako hautaketa-prozesuetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea egutegiko 20 egunekoa izango da, Estatuko Aldizkari Ofizialean oinarri espezifikoak argitaratzen diren egunaren biharamunetik hasita.

3.3.– Aurkezteko modua.

Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonek Internet bidez egin ahal izango dute eskaera eta honako helbide elektronikoan eskuragarri duten eredua bete beharko dute: www.ivap.euskadi.net/ope.

Internet bidezko eskaera Eusko Jaurlaritzako KZGunea zentro publikoen bidez egin ahal izango da. KZGuneen zerrenda eta kokagunea eskuragarri izango dira honako helbide elektronikoan: www.kzgunea.net.

Halaber, hemen adierazitako tokietan ere eskaera egitea egongo da:

● Gasteiz:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea; Donostia kalea 1 (Lakua); PK: 01010. (Ezgaitasunak dituzten pertsonentzako sarbidea egokituta).

● Bilbo:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea: Errekalde zumarkalea 18; PK: 48009.

● Donostia:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea: San Bartolome 28, PK: 20007 (Ezgaitasunak dituzten pertsonentzako sarbidea egokituta).

● Oñati:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea: Unibertsitate Zaharra; PK: 20560.

Aurrean azaldutako lekuetara bertaratuta eskabideak aurkezteko ordutegia honako hau izango da:

● Astelehen eta asteazkenetan: 09:00etatik 14:30era.

● Astearte eta ostegunetan: 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:30era.

● Ostiraletan: 09:00etatik 14:00etara.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak, 38.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere entrega daitezke eskabideak.

Posta-bulegoen bidez aurkezten diren eskabideak, ziurtatu aurretik, irekita eman behar zaizkio postako funtzionarioari, hark eguna jarri eta zigilua jar diezaien.

3.4.– Eskabideen edukia.

Onartuak izateko eta, hala dagokionean, hautaprobetan parte hartu ahal izateko, izangaiek eskabideko atal guztiak bete beharko dituzte, baita tasak ordaindu ere. Izangaiek adierazi beharko dute eskatzen zaizkien baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako.

Izangaiek, beraz, onartuak izateko, honakoak adierazi beharko dituzte eskabidean, dagokion atalean:

a) Prozesua zuzen kudeatzeko norberari buruz eskatzen diren datuak.

b) Zein txandatan hartu nahi den parte.

c) Zein azpieskalatan hartu nahi den parte.

d) Oposizio-aldiko ariketak egiteko hautatu den hizkuntza ofiziala, hau da, euskara ala gaztelania.

e) Ezagaitasunak dituzten pertsonek beren ezaugarriaren berri eman beharko dute eskabidean; eta han adierazi beharko dute, hala dagokionean, zein egokitzapen tekniko behar dituzten hautaketa-prozesuak egin ahal izateko.

f) Adierazitako titulazioa.

3.5.– Datu pertsonalen babesa.

Izangaiek eskabidean emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da. Fitxategi hori hautaketa-prozesua kudeatzeko eta behin-behineko langileak eta bitarteko funtzionarioak kontratatzeko sortuko den lan-poltsa kudeatzeko baino ez da erabiliko. Fitxategi horren erabilera eta jarduera antolatzeko datu pertsonalak eta datu pertsonalak dituzten herri titulartasuneko fitxategiak babesteko legeriak zehaztutakoari jarraituko zaio –Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea–.

4.– Eskabideak jasotzeagatik tasak ordaintzea:

4.1.– Tasen zenbatekoa.

Tasen zenbatekoa Tasen Legearen Goi Mailako Teknikariei dagokiona izango da: 21,37 euro.

4.2.– Tasak ordaintzeko moduak.

Tasak ordaintzeko bi modu daude:

a) Eskabideak aurkezteko oinarri hauetan adierazi ditugun bulego administratiboetara joanez gero, honako banketxeetako sukurtsal batera joan beharko da eta eskaera orria aurkeztu:

○ BBK (Bilbao Bizkaia Kutxa).

○ Caja Vital Kutxa.

○ Gipuzkoa Donostia Kutxa.

○ Caja Laboral-Euskadiko Kutxa.

○ BBVA (Banco Bilbao Bizkaia Argentaria).

○ La Caixa (Caja de Ahorros y Pensiones de Barcelona).

○ Bankoa.

○ Banco Guipuzcoano.

b) Eskabidea Internet bidez aurkeztuko bada, tasa ordaintzeko bi modu daude:

○ Off-line ordainketa: aipatutako banketxeetako edozein sukurtsalera jo eta sistemak emandako inprimakia aurkeztu.

○ On-line ordainketa: banketxe hauetako banka elektronikoko bezero izanez gero, sistemaren bitartez egin daiteke ordainketa.

4.3.– Tasak ordaintzeko epea.

Tasak ordaintzeko epea eskabideak aurkezteko epearen berbera da.

Tasa ordaintzea eta ordainagiria aurkeztea ez da nahikoa izango prozesuan parte hartzeko; izan ere, eskabidea forma errespetatuz eta behar den epearen barruan aurkeztu behar da.

4.4.– Tasak ez ordaintzearen edo gaizki ordaintzearen ondorioak.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu ez badira tasak, prozeduratik kanpo geratuko da izangaia, ez baitu bete hautaketa-prozesuan onartua izateko baldintza.

Aurrekoa horrela bada ere, ordaindutako zenbatekoan akatsen bat baldin badago, hamar egun balioduneko epea emango zaio izangaiari akatsa zuzen dezan.

5.– Izangaiak onartzea.

Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, azken horiek aztertuko dira izangaiek baldintza guztiak betetzen dituzten egiaztatzeko, eta ondoren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak ebazpena emango du. Horren bidez onartutako eta kanpoan utzitako hautagaien behin-behineko zerrenda agertuko da eta kanpoan utzitakoak zergatik utzi diren kanpoan azalduko da. Ebazpen hau www.ivap.org helbide elektronikoan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan argitaratuko da.

Onartu eta kanpo utzitako behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak jarri ahal izango dira, argitaratu eta hurrengo hamar asteguneta. Halaber, epe horretan, zuzendu daitezkeen instantzietan zuzen daitezkeen akatsak konpontzea egongo da.

Erreklamazioak aurkezteko epea igarota eta erreklamaziook ebatzita, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda argitaratzeko ebazpena emango du. Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, www.ivap.org helbide elektronikoan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan argitaratuko da.

6.– Kalifikazio epaimahaia.

6.1.– Izendapena.

Hautaprobak kalifikatuko dituzten epaimahaikideak izendatzeko, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak agindua emango du. Izendapenak www.ivap.org helbide elektronikoan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan argitaratuko dira.

6.2.– Osaera.

Epaimahaikideen izenak dagozkion oinarri espezifikoetan jasoko dira, edo bestela, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren agindu bidez.

Epaimahaikideek trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia izan dezaten ahalegina egin behar da eta emakume- eta gizon-ordezkarien kopurua orekatua izan behar da. Lau kide baino gehiago duen epaimahaian, sexu bakoitza gutxienez % 40 ordezkatzen denean ordezkaritza orekatua dela esaten da.

6.3.– Prozeduran parte ez hartzea eta errefusatzea.

Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu prozeduran, eta hala jakinaraziko diote agintaritza dei-egileari, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide

Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak– 28. artikuluan jasotako kasuren bat gertatzen bada, edo deialdia argitaratu baino bost urte lehenagotik hautaprobetan parte har lezaketen izangaiak prestatzen ibili badira.

Aurreko kasuetako bat gertatzen denean ere, interesdunek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, betiere, aipatutako legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin bat.

6.4.– Jarduteko arauak.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22. artikulutik 27.era bitartean zehaztutako arauetara egokitu beharko da epaimahaiaren jarduna. Epaimahaiburuak aginduta, idazkariak bilerarako deia egingo du hautaprobak hasi baino lehenago eta behar bezain garaiz. Epaimahaia legez eratzeko, ezinbestekoa da epaimahaiburua eta idazkaria bertaratzea edo, hala dagokionean, beren ordezkoak, eta kideen erdia, gutxienez.

Bertaratutakoen botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak. Berdinketak epaimahaiko buruaren kalitatezko botoak desegingo ditu.

Epaimahaiburuaren edo bere ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, epaimahaikideek ordezkatuko dute, hurrenkera honetan: hierarkian maila goragokoena duena, antzinatasun handiena duena eta zaharrena (adina).

Idazkari titularraren edo bere ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo titularra zein ordezkoa eragiten dituen legezko bestelako kausa gertatzen bada, edozein epaimahaikidek bete ahal izango du kargua, baldin eta kideen botoen gehiengoak hala onartu badu.

6.5.– Kalifikazio-epaimahaiaren ahalmenak.

Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionala izango du, eta bere ardura izango da prozedura legezkotasunez egin dadin zaintzea.

Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat, batetik, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu; bestetik, deialdia behar bezala garatzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu; eta, azkenik, oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetarako, behar diren irizpideak ezarriko ditu.

Epaimahaiburutzak behar diren neurriak hartuko ditu oposizio-aldiko ariketen edukiaren isilpekotasuna bermatzeko, eta azterketak, ahal dela, izangaien izena jakin gabe zuzen daitezen.

6.6.– Kalifikazio-epaimahaiaren egoitza.

Jakinarazpenetarako eta halako beste gauzetarako, Epaimahaiak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egoitzan izango du helbidea: Donostia kalea 1 (Lakua); PK: 01010.

6.7.– Zerbitzuagatiko kalte-ordainak.

Epaimahaikideek, egingo duten zerbitzua delaeta, kalteordainak jasoko dituzte, bertaratzeak barne direla, betiere, arlo horretan indarrean dagoen araubidearekin bat.

Probetan zaintze-lanetan aritzen diren langileek, halaber, horri buruz indarrean dagoen araudiaren arabera dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte.

7.– Hautaketa-prozedura.

7.1.– Hainbat azpieskalatara sartzeko hautaketa-prozedura.

Hautaketa-prozedura eta berau osatzen duten probek eta, hala badagokio, lehiaketaren fasearen edukia, hautaketa-ikastaroa eta praktiketako aldia azpieskalari, mailari eta txandari zehaztutakoak izango dira.

7.2.– Hautaproben bilakaera.

Lehenengo ariketaren data, tokia eta ordua Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen bidez zehaztuko dira. Ebazpena www.ivap.org helbide elektronikoan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan argitaratuko da.

Onartutakoen eta bazter utzitakoen behin behineko ebazpenaren bidez onartu diren izangaiek aurkeztu ahal izango dira lehenengo ariketa egitera. Bazter utzitako gisa agertuta ere, erreklamazioa jarri eta haren ebazpenaren berri ez izanaren agiria ariketaren egunean erakusten dutenek ere aukera izango dute parte hartzeko.

Oposizio-aldiko ariketa bakoitzean, deialdi bakarra egingo zaie azpieskala bakoitzean lehiatzen diren izangaiei. Izangaiek, nork bere burua identifikatzeko, nortasun-agiria, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko dute probetara. Dokumentu hauetako bat ere aurkezten ez duten pertsonek ariketa egitea izango dute. Halere, ariketaren baliozkotasuna eta eraginkortasuna baldintzatuta egongo dira gerora identifikaziorik egin arte, betiere kalifikazio-epaimahaiak ezarritako irizpideei jarraiki.

Ariketak egiteko egunak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak argitaratuko ditu www.ivap.org helbide elektronikoan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan. Nolanahi ere, ariketak hasi baino gutxienez bost (5) egun lehenago jarri beharko dira iragarkiak.

Kalifikazio-epaimahaiek denbora eta ariketak egiteko baliabideak emango dizkiete egokitzapenik behar eta eskabidean hala eskatu duten izangaiei. Izan ere, horrela, aukera-berdintasunean arituko dira gainerako parte-hartzaileekin, betiere, hori eginda probaren edukia desitxuratzen ez bada eta eskatutako gaitasun-maila jaisten edo kaltetzen ez bada.

Hautagaien azken kalifikazioa izango da hautagai bakoitzak hautaketa-prozesuko atal guztietan lortu dituen puntuen batura.

Emaitzak eta kalifikazioak www.ivap.org helbide elektronikoan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan argitaratuko dira.

8.– Gainditu dutenen zerrendak.

Oposizio-fasearen eta, egonez gero, amaierako fasearen azken kalifikazioa eginda, epaimahaiak gainditu dutenen behin-behineko zerrenda egingo du, dagozkion kalifikazioekin bat. Zerrenda ezberdinetan agertu beharko dituzte deialdiak dituen txanda guztiak.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen bidez argitaratuko dira zehaztutako zerrendak eta www.ivap.org helbide elektronikoan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan agertuko dira.

Gainditu dutenen behin-behineko zerrendak argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek hiru (3) egun balioduneko epea izango dute bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, hautaketa-prozesuan aukeratutako izangaien behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da, besterik gabe.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a artikulua aplikatuta, hautagaien gaitasun bera dagoela esango dugu hautaketa-prozesuaren amaieran puntuaketa berdinketa gertatzen bada. Alegia, proba guztiak egin eta baloratu ondoren eta, hala badagokio, dagozkion merezimenduak gehitu ondoren.

Kontuan izan behar da estatu osorako gaikuntza duten Toki Administrazioko funtzionarioen eskala osatzen duten azpieskaletan dagoen emakumezkoen ordezkaritza ez dela % 40 baino gutxiagokoa. Berdinketarik gertatuz gero, lortutako puntuazioari jarraiki ezarriko da ordena, hurrenez hurren:

1) Bigarren ariketa.

2) Hirugarren ariketa.

3) Lehen ariketa.

4) Zozketa.

Erreklamazioak eginez gero, kalifikazio-epaimahaiak behin argituta, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen bidez argitaratuko dira hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendak eta www.ivap.org helbide elektronikoan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan argitaratuko dira.

Ebazpen horren bidez behin betiko gainditu duten pertsonei hautaketa-ikastaroa egiteko deialdia egingo zaie.

9.– Prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldia.

9.1.– Hautaketa-ikastaroa.

Hautaketa-prozesuan izangai diren pertsonek eta behin betiko gainditu dutenek, praktiketako funtzionario izendapena jasotzeko proposatuko dira eta deialdia jasoko dute hautaketa-prozesua osatzen duen trebakuntzako hautaketa-ikastaroan parte hartzeko.

Hala ere, epaimahaiak ezingo ditu praktiketako funtzionario proposatu deialdiko lanpostu-kopurua baino gehiago den pertsona-kopurua. Muga hori hausten duten proposamenak erabat deusezak izango dira.

Praktiketako funtzionario izateko proposatutako pertsonek eskaria egin ahal izango dute honakoak geroratzeko: hautaketa-ikastaroan sartzeko eta azpieskala berean gerora deitutako prozesuetako hautaketa-ikastaroetan sartzeko. Eskaria behar bezala arrazoitu behar da, eta horren ebazpena Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak emango du.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko edo geroratzea onartutako kasuak salbu, hautaketarako trebakuntza-ikastaroan hasten ez badira, hautaketa-prozesuak emandako eskubideak galduko dituzte.

Deitutako pertsonak hautaketa-ikastaroan hasten ez badira eta geroratze-kasuak alde batera utzita, ikastaroa hasi baino lehen jakinarazi beharko dute. Epaimahaiak izendapen-proposamen osagarria egingo du, eta dagokion pertsona edo pertsonak izendatuko ditu praktiketako funtzionario. Hori hautaketa-prozesua gainditu dutenen zerrendako puntuazioaren arabera. Halaber, pertsona edo pertsona horiei deia egingo zaie dagokien hautaketa-prozesuan parte hartzeko:

Deitutako pertsonak hautaketa-ikastaroan hasten ez badira eta geroratze-kasuak alde batera utzita, ikastaroa hasi baino lehen jakinarazi beharko dute. Epaimahaiak izendapen-proposamen osagarria egingo du, eta dagokion pertsona edo pertsonak izendatuko ditu praktiketako funtzionario. Hori hautaketa-prozesua gainditu dutenen zerrendako puntuazioaren araberako ordena jarraituta.

Azpieskala bereko hurrengo hautaketa-ikastaroetako deialdietan parte hartzeko eskubidea izango dute: hautaketa-prozesuan sartzeko geroratzea onartu zaien pertsonak eta dagokien hautaketa-ikastaroa hasi eta geroago praktiketako funtzionario izateko izendatutako pertsona guztiak. Hori guztia, praktiketako funtzionario izendapena eragin duen lan-eskaintza publikoa betetzea luzaezina den hiru urteko epea baino gehiago luzatzen ez bada.

Izangaiak praktiketako funtzionario izendapena jasoko dute hautaketa-ikastaroan hasten direnean.

9.2.– Praktikaldia.

Hautaketa-ikastaroa amaitutakoan, azken hori gainditu dutenek praktikaldi txanda egin beharko dute foru– edo toki-administrazioren batean, oinarri espezifikoetan zehazten diren irizpideei jarriki.

10.– Hautatutako langileen zerrenda.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen bidez argitaratuko dira zehaztutako zerrendak eta www.ivap.org helbide elektronikoan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan agertuko dira. Hautaketa-prozesu osoa gainditu duten pertsonak izango dira hautatutakoak.

Era berean, ebazpen horren bidez erantzungo zaie dagokion azpieskalan karrerako funtzionario gisa hautaketa-prozesua gainditu dutenei. Hogei (20) egun naturaleko epea izango dute deialdian eskatutako baldintzak eta gaitasun-baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkezteko.

Hautaketa-prozesuko kalifikazioak, atal guztiak barne, eskumena duten organoei bidaliko dira. Horren bidez, oposiziogileak behin-behineko zerbitzuak emateko lan-poltsetan sartuko dira, betiere, horri dagokionez zehaztutakoari jarraiki.

11.– Agiriak aurkeztea.

11.1.– Aurkeztu behar diren agiriak.

Karrerako funtzionario izendatzeko izangaiek gaitasunak eta deialdian eskatutako baldintzak egiaztatzeko honako agiriak aurkeztu beharko dituzte:

a) NANaren fotokopia konpultsatua.

b) Fotokopia konpultsatua: azpieskala bakoitzera sartzeko eskatzen diren tituluen fotokopia konpultsatua; tituluok deialdiaren oinarri espezifikoetan zehazten dira.

c) Diziplinazko espedientearen bidez autonomia-erkidegoetako herri-administrazioetako edo organo konstituzionaletako edo organo estatutarioetako zerbitzutik banatuta ez egotearen zinpeko aitorpena edo agintza, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionario-kidegoan edo eskalan sartzeko desgaikuntza absolutu edo berezia ez izatea.

d) Medikuaren ziurtagiria. Ziurtagiri horretan, oinarri hauek eta deialdiaren oinarri espezifikoek zehazten duten bezala, interesdunak egiaztatu beharko du ez duela gaixotasun edo akats fisikorik dagozkion eginkizunak betetzea galaraziko dionik.

e) Ezgaitasunen bat duten izangaiek aurkeztu beharko dute administrazioko organo eskudunaren (foru-aldundietako sail eskuduna, Imserso ziurtagiria. Bertan ezgaitasun-maila % 33 edo gehiago dela adierazi beharko du. Halaber, Administrazioko Zerbitzu Medikoak emandako agiria eskatzen duten lanpostuetan aritzeko gaitasuni badutela ziurtatzeko.

f) Merezimenduak. Lehiaketa-fasean adierazi diren merezimenduen jatorrizko agiriak edo horien fotokopia konpultsatuak, halakorik balego.

11.2.– Agiriak aurkezteko modua.

Aurreko puntuetan zehaztutako dokumentuek jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan behar dute. Konpultsatuak baliozkoak izateko, ondoko informazio hau jaso behar da: data eta konpultsa egin duenaren izen-abizenak, NANa eta izenpe irakurgarria.

Aurreko agiri guztiak aurkeztu ezina behar bezala arrazoitzen bada, izangaiak zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabili ahal izango du deialdiko baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzeko.

11.3.– Non eta noiz aurkeztu behar dira dokumentuak.

Hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratu eta biharamunetik hasita, hautatutakoek hogei (20) egun naturaleko epea izango dute aurreko agiri guztiak aurkezteko. Dokumentuok Justizia eta Herri Administrazio Saileko Funtzio Publikoaren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira, Eusko Jaurlaritzak Gasteizen duen egoitzan (Donostia kalea 1, PK 01010).

11.4.– Agiriren bat ez aurkeztea.

Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiriak aurkezten ez dituztenak, edo agiriak aztertuta ikusten bada bigarren oinarrian zehaztutako baldintzetako bat ez dutela betetzen, edo dagozkien eginkizunak betetzeko eskatzen den gaitasun fisiko nahiz psikikorik ez dutela, ezin izango dira izendatu. Era horretako kasuetan, bertan behera geratuko dira aurretik egindako urrats guztiak, eta horrez gain, litekeena da erantzukizunik izatea beren gain eskabidean faltsukeria egiteagatik.

12.– Karrerako funtzionario izendatzea, plaza hutsak esleitzea eta lanpostuaz jabetzea.

Dokumentuak aurkezteko epea bukatuta, eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzako txostenean adierazten bada hautatutako pertsonek garaiz eta forma egokian aurkeztu zituztela, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak estatu osorako gaikuntza duten Toki Administrazioko funtzionarioak izendatuko ditu dagokion azpieskalan. Horiek dokumentuan garaiz eta dagokion forman aurkeztutako izangaiak izango dira.

Izendapenak www.ivap.org helbide elektronikoan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan argitaratuko dira, baita Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere.

Izendatutako izangaiek hamabost (15) egun naturaleko epea dute estatu osorako gaikuntza duten Toki Administrazioko funtzionario lanpostuaz jabetzeko, deialdiak hizpide duen azpieskalaren barruan, izendapen-agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Epe horri hamabost (15) egun naturaleko beste bat gehitu ahal izango zaio izangaiak hala eskatzen badu, betiere, ezinbesteko arrazoia justifikatua tartean bada.

Zehaztutako epearen barruan, eta ezinbesteko arrazoiak salbu, estatu osorako gaikuntza duen Toki Administrazioko lanpostua hartzen ez badute, eskubidea galduko dute estatu osorako

gaikuntza duten Toki Administrazioko funtzionario lanpostua eskuratzeko, betiere hautaketa-prozesuak zehaztutako azpieskalan.

Horrelakoetan, epaimahaiak hurrengo izangaiaren aldeko praktiketako funtzionario izendapen-proposamen osagarria egingo du, betiere hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-hurrenkeraren arabera. Oinarri hauetako 9.1 klausula aplikatuko zaie pertsona horiei, betiere, pertsona horien ezaugarriek ez badute oztopatzen xedapenen aplikazioa hautaketa-prozesuaren momentu horretan.

13.– Deialdiaren aurka egitea.

Deialdia, oinarriak zein epaimahaien jardunetatik datozen administrazio-egintza guztiak aurka ditzakete interesdunek, betiere, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak, jasotako kasu eta moduetan.